



Ariketa hauek Ikasbileko 2044172 jardueran aurkituko dituzu

1- Entzun aurretik



1.1 Seme-alaben lagunen gurasoak

  Jone mutiko baten ama da eta haren lagun berrien gurasoekiko harremana izango dute hizpide. Ikasgelako saioaren aurretik, egizu gogoeta gaiaren inguruan. Zure egoerari ondoen egokitzen zaizkion aukerak markatuz, edo zeurea idatziz. Ondoren, azaldu zure bizipenak idatziz

Seme-alabak ditut

Nire betiko lagunekin ateratzen jarraitzen dut, baina seme-alaben lagunen gurasoen laguna ere banaiz

Seme-alaba zaharrenaren lagunen gurasoak dira nire lagunik onenak orain

Ez dut sekula lagun-harremanik izan seme-alaben lagunen gurasoekin

Besterik: _____

Ez daukat seme-alabarik

Nire betiko lagunekin eta haien seme-alabekin ateratzen jarraitzen dut

Orain guraso diren betiko lagunekin tarteka ateratzen naiz, gehienetan ordea, beren seme-alaben lagunen gurasoekin ateratzen dira

Lehengo lagunetz gain, orain haien seme-alaben lagunen gurasoak ere gurekin ateratzen dira askotan

Besterik: _____

Nola aldatu dira zure lagunekiko harremanak seme-alabak dituzunetik, edo zure lagunak guraso direnetik? Idatzi zure bizipenak ikasgelan partekatzeko.

1.2 Nikoren lagun berrien gurasoak.

Irakurri beheko aukerak eta zure iritziarekin bat datorrena aukeratu. Komentatu zure ikaskidearekin berdin pentsatzen ote duen jakiteko.

- Beharrezkoa iruditzen zait haien laguna egitea, horrela haurrak denbora gehiago igaro dezake bere lagunekin
- Harreman faltsua iruditzen zait. Nire garaian, nik nire lagunak nituen eta nire gurasoek bereak. Zertarako nahastu?
- Behartuta sentitzen naiz seme-alabek aukeratutako lagunekin egon behar badut
- Aitzakia polita iruditzen zait lagun berriak egiteko
- Bi kontu desberdin dira: nire betiko lagunekin egotea gustatzen zait, baina eskolako edo kirol kontuetan, esaterako, ez daukat beste erremediorik eta haiekin egotea egokitzen zait.



Joneri gustatuko ote zaio Nikoren lagunaren gurasoekin harremana izatea? Irakurri aukerak eta elkarrizketa entzun ahala, aukeratu Jonek zer pentsatzen duen. Ea zure aukerarekin bat datorren!




2- Entzun bitartean

2.1 Aukeratu

Jon eta Jone bizilagun berriez ari direla, bestelako gaiak ere atera dira elkarrizketara. Baieztapen hauen artean egia eta gezurra direnak daude nahastuta. Markatu edo . Ondoren alderatu ikaskidearekin.

- Bizilagun berriak jatorrak iruditu zaizkio Joni
- Jone lehen bertan bizi zen andre zaharra nahiago zuen baina hil egin zen
- Joneren bizilagun berriek bi alaba dituzte, Nikoren oso adin bertsukoak
- Niko ez da oso ondo moldatzen bizilagun berrien alaba batekin, baina bestearekin oso gustura egoten omen da
- Igerilekura joaten direnean jendea ez omen zaio hurbiltzen Jon inguruan izaten duelako
- Arratsaldean merienda antolatu dute bizilagun berriek eta Jone joango da, baina Joni ez zaio horrelakoetan ibiltzea gustatzen eta lanaren aitzakia jarri du ez joateagatik.
- Jon Joneren bizkartzaina izaten hasi zenean maitemindu zirela aitortu dute.
- Niko eta bere lagun berriak oso gustura ibili dira meriendan, baina Jone ez da sekula gehiago joango
- Bizilagunak jatorrak direnez, afaltzera gonbidatu ditu Jonen. Jon ere gonbidatuta dagoela esan du.

2.2 Bizkartzaina


   Joneren esanetan, Jon bere bizkartzaina da. Zer esan dute horri buruz? Idatzi gogoan hartu dituzun bizpahiru ideia eta zure ikaskidearekin alderatu.

- _____
- _____
- _____
- _____

3- Entzun ondoren

3.1 Solasaldia: seme-alaban gurasoen laguna zara?

   Taldean solasaldia izango duzue. Gaia hauxe duzue: seme-alaben gurasoen laguna izan bai ala ez? Prozedura:

1. Aztertu lagunaren arteko harremanak nola aldatzen diren seme-alabak izaten hasten garenean. Horretarako, partekatu  ariketan erantzundakoa ikaskideekin ea oso iritzi desberdinekoak zareten.
2. Irakurri guraso batek esandakoa eta eman zuk ere zure iritzia gaiari buruz.



“Bizitzan zehar era guztietako lagunak izatearen aldekoa naiz. Haurrak dituzunean, haien lagunaren gurasoak izan daitezke lagunik onenak. Zergatik ez? garai horretan antzeko bizipenak bizitzen ari gara eta oso lagungarria izan liteke haiekin harreman estua izatea arazo askori irtenbidea emateko. Atsegina izan daiteke eta denboraren poderioz, lagun koadrila berria ere osa dezakezu... eta seme-alaben aitzakian, afariak, mendi irteerak eta horrelakoak ere antolatu”